

# "Hego haizeak" kontatu dit...

Amaia Olkotz

"Hego haizeak" kontatu dit herri guztiak direla herri, hiri guztiak hiri, jendeak jende, eta txakurrak hemen, Parisen bezala, oinutsik. Kontuak kontu, gainerako herri, hiri, jende eta "Paris" ak eguneroko poz eta min txikitxo eragiten digute hemen, geurean, bizi garenoi. "Hego haizeak" kontatu dit, baita ere, geurea ez dela munduko hiri handi, bikain eta ederrena, baina

besteek baino eguneroko poz edo min handiagoak eragiten dizkigu. Eta zer ote da horren eragile? Biztanleria esango nuke, bertako jendea. Geure herriko jende horrexek bideratu zuen "Hego haizeak" kontatu zidan ondorengo istorioaren mamia:

Ba omen zen herrian neskaxa gazte, eder, alai eta xarman-ta: Loli. Horrezaz guztiaz gain, ordea, bazen beste zerbait gure Loli: askea, independentea, eta parranda eta gizonzalea. Osagai guztiak zeuzkan, beraz, garai hartan bekaizkeriak jotako askok gorrota zezaten. Eta bai, halaxe gertatu zen, freskotasuna eta bizinahia zerion neskari bizimodua mingostu zioten, hegoak ebaki, makina bat amurru-mota erabiliz. Lolik, itota, herria utzi, zuen "Ez dut askatasunik". Madril joan zen.

Urteak luze joan ziren, eta herrian ez zen Loliren beste berririk. Bizitzak aurrera egin zuen eta denborak gorrotoa urratu. Artean Lolik Madrilen utziak zituen gartzetasuna eta kemena.

Orain hiru bat urte zumardiko gerizpean agertu zen garai bateko gazte liraina, ahiturik. Harrigarria zen berriz ere herrian barrena ikustea. Ez ote zen baztertu zutenen beldur? Ba ote zeukan haien irainei aurre egiteko sasoirik? Ez. Ez ziren horiek haren presentziaren arrazoiak; Lolik berak argi eta garbi zekien gertatzen ari zena: «Lehen bere hatz "garbiaz" seinalatzen nindutenek orain abegi ona egin didate, gaisorik, lodi eta zahar bainago. Inbidia!».

Inbidia... "Hego haizeak" kontatu dit besteen ona ikusi ezaina dela. Herri eta hiri guztietan barreiatutako sentipena, inbidia; eta hemen, edonon bezala, ezbehar askoren iturria...

